VINAROZ, 11.— Apenas si han quedado testigos en el camping «Los Alfaques», con capacidad para unas 264 personas, después de que la explosión de un camión cisterna que transportaba gas inflamable hiciera explosión en la linde misma que separa la carretera y el camping. La catástrofe se produjo poco después de las dos y media de esta tarde, cuando la mayoría de los usuarios del camping —casi todos de nacionalidad extranjera— se hallaban descansando o entretenidos en algunos quehaceres de limpieza de los utensilios que habían empleado para el almuerzo. Un camión perteneciente a «Cisternas Reunidas», procedente de Tarragona y con destino Puertollano, había dejado atrás San Carlos de la Rápita y en el tramo por el que la nacional 340 Barcelona-Valencia atraviesa el término de Alcanar, cerca del barrio de casas de Alcanar y antes de Vinaroz, se incendió tras hacer —según algunos testigos— algunos virajes extraños. Se oyó primero una gran explosión y momentos después otra mayor. Los vecinos de una pequeña urba-

un amasijo de hierro y chapa y tablas, pedían ayuda unos niños. Cuerpos rotos por todo el recinto del camping y un gran cráter cerca de la entrada, en el que cabían muy bien dos o tres furgonetas.

Las personas de los chalets cercanos y muchos viajeros que circulaban en ambas direcciones de la carretera fueron los primeros auxiliares de los heridos. Precisamente en varios coches particulares llegaron los primeros heridos graves a la única clínica de Vinaroz, donde poco se pudo hacer por ellos más que primeras curas de urgencia. Las quemaduras de tercero y hasta de cuarto grado planteaban la necesidad de evacuarlos con urgencia a centros especializados. La misma situación se dio en el hospital y clínicas de Tortosa. Toda la comarca del Bajo Ebro y de San Carlos de la Rápita y Vinaroz se movilizó inmediatamente: las emisoras locales reclamaban ambulancias y donantes de sangre, la Guardia Civil de Alcanar y de San Carlos se destacó completa al lugar del accidente. El brigada de la

zona cercanas a las playas. Muy pronto quedaron completamente llenos los hospitales de San Carlos, Amposta, Vinaroz, Benicarló y aun el de Tortosa y se planificó el envío de los casos más graves hacia Tarragona y Reus y hacia Castellón y Valencia.

CARACTERISTICAS DEL CAMPING

Habitualmente este camping suele ser ocupado por turistas extranjeros, especialmente de nacionalidad alemana, francesa y belga. La presencia de españoles generalmente es muy pequeña.

El camping «Los Alfaques» se encuentra situado en el término municipal de Alcanar, en el kilómetro 16 de la carretera de Vinaroz a Venta Nueva. Se encuentra abierto entre abril y septiembre. Cuenta con servicios postales, sanitarios, reparación de vehículos y en él se pueden practicar deportes náuticos, excursiones y pesca. Se encuentra situado en las cercanías del mar, muy próximo a la desembocadura del río

La totalidad de los medios informativos en Madrid, Barcelona y otras ciudades de España llaman continuamente a la sede de la empresa que ocupa la planta doce de un moderno edificio sito en la calle Inés de Santa Cruz, junto a la plaza de Cuzco, cercana al estadio Santiago Bernabéu.

El personal de la misma y algunos directivos que se encontraban esta tarde tras el accidente en la citada sede titubean a la hora de hablar con los informadores. Se limitan a facilitar un comunicado que, durante dos horas y con mucho nerviosismo y la ayuda de varias secretarias han redactado.

Sobre las nueve de la noche la Junta directiva sigue reunida, escuchando todas las noticias que se dan en relación al suceso y respondiendo telefónicamente a la avalancha de periodistas que llaman continuamente.

AVION CON 200 CAMAS

Un avión de transporte con 200 camas especiales a



CARACTERISTICAS DEL CAMION QUE ORIGINO LA TRAGEDIA

*Las características del camión-cisterna para transporte de gases, que ha sido la causa del accidente en las proximidades de la localidad tarraconense de San Carlos de la Rápita, son: matrícula M-7034-C, capacidad de 45 metros cúbicos, canon de carga más tara de 38 toneladas autorizadas, y acogida a las normas europeas de la A.D.R. (código de transporte de productos peligrosos por carretera), según ha manifestado el señor Vivan-*

# 5.- ‘El Correo’-ko Infografiaren Aro Modernua

## 5.1.- Aurrekariak. 1980. hamarkadaren lehen erdia eta Oiz mendiko istripua

1981etik aurrera 'El Correo'-k bere 'Nohab' errotatiba berriarekin inprimatzen hasia zen Pintor Losada kaleko egoitzan. Orrialdearen tamaina aurrekoarekin oso antzekoa zen, baina aurreko hamarkadarekin konparatuz modernizazioa nabaritzen zen. Hobetzeko griña hau hiru esparrutan nabaria zen:

Diseinu aldetik: orrialdeen modulu bitartez eraikitzeak jariokortasun handiagoa eman zion irakurketari. Jauzi oso argia izango da aurreko hamarkadako testu zutabe ez ordenatuen itxura eta tamaina irregularrarekin. Batez ere 1984eko birdiseinuaren ostean tipografia eta testu kutxen tamaina erregularragoa lortuko baitute.

Argazkigintza aldetik: fotografia ere helduagoa bihurtzen da José Ignacio Fernández Bañuelos atalburua bilakatuko da hamarkada honetan eta departamentuaren eraldaketa-rekin batera filosofia proprioa bultzatuko du egunkarian argazkigintza aldetik ere.

Ilustrazio aldetik: Inoiz baino ilustratzaile eta komikilaririk onenak izango du egunkarian hamarkada honetan zehar. Denborak ematen duen ikuspegiarekin begiratuta, egun sines-tezina dirudi egunkari erregional batek kalitatezko honenbeste sinadura ospetsu eta erre-konozituak batera publikatzea. Zerrenda harritzekoa da:

- Luis del Olmo (Olmo)
- Antonio Fraguas de Pablo (Forges)
- José María González Castillo (Chumi Chúmez)
- Jaume Perich Escala (El Perich)
- José Luis Martín Zabala (J. L. Martín)
- Francisco Martín Morales (Martinmorales)
- Rafael Uría (Amenofis)

Hiru hamarkada geroago, hauetako bik bakarrik jarraitzen dute 'El Correo'-n gaur egun; 'Olmo' eta 'Amenofis' sinadurapekoak. Gainontzeko bostek bizirik eta lanean jarraitzen dute Espainian arrakasta osoz nazio mailako komunikabide garrantzitsu ezberdinetan.

Zazpi horiekin batera beste bi sinadura ere aurkitzen ditugu; ‘Ori’ eta ‘Palmero’.

¿Eta infografia aldetik? Ia ezer ez. 80. hamarkadaren lehen erdiko hauek urte hutsak dirudite, Emilio García Ergüinek egunkaria uztea erabaki zuenetik. Grafikorik eza nabaria da eta beronen falta 'argazki-euskarri'-ekin betetzen saiatu zen.

1980 eta 1981ean zehar 'Ángel Arriba'-k sinatutako zenbait mapa aurkitzen ditugu. Bereziki 1981eko apirilean zehar bere presentzia areagotu egiten da, guztira 18 infografiko ezberdin prestatuta agertzen dira –gehienak sinatu barik– baina landuenak bere izena daramate (adib. abenduak 17koa, Zisjordaniari buruz). Abendura arte bere sinadura nohizbehinka agertzen jarraituko da. Inolako erregulartasunik gabe (adib. 1981eko apirilak 10ean hiru infografiko ezberdin sinatu zituen), ilustratzaile honek zirudien pertsona bakarra egunkarian krokisak prestatzeko gaitasunarekin, baina bere agerpenak hain sakabanatuta dagoz ezen lanpostu finkorik ez zuela okupatzen esan dezakegu, seguru aski tailerreko langile edo erredaktore bat izan zitekeen.

Bestaldetik 'Associated Press' agentzia iparamerikarraren infografikoak ere publikatu egiten ziren ere 80. hamarkadaren hasieran. 'AP-EFE' sinadurapean dozena bat aldiz agertzen dira 1981ean zehar. (Adib: 1981eko urriak 9an eta abuztuak 28an)

1982an Munduko Futbol Txapelketaren fase finala Espainian jokatu zela kontutan hartuz, deigarria da oso nola halako kirol gertaera garrantzitsu izan arren, kiroletako orrialdeak ia ez zuten infografikorik ikusi uda hartan. Partiduen emaitzak, sailkapenak eta egutegiak taula hutsez prestatuak izan ziren.

Antzeko adibidea aurkitzen dugu Frantziako 'Tour' txirrindularitza lasterketarekin. Organizazioak luzatzen zuen mapa ofiziala zuzenean argitaratzen zuen 'El Correo'-k urtez urte, frantsezetik itzuli gabe eta testu tamainak ere tratatu gabe. (Besteak beste, ik. 1982 ekainak 26ko edizioa, 1984eko ekainak 27ekoa baita 1985eko ekainak 25ekoa). Antzekoa gertatzen da 1984ko ekainak 2an –9. orr.– 'Ibilaldia', Bizkaiko ikastolen jaiaren mapa itzultzeke ere argitaratzen dutenean.

1983eko ekainak 11eko infografiko hau adibiderik onena da nola urte haietan informazio kuantitatiboa grafikoki nola presentatzeko erreflesionatzeko dedikatutako pertsonarik ez zegoela. Bertan atletismoko 1.500 metrotako frogaren emaitzen eboluzio historikoa agertzen da, baina datuen orden irakurtezinak ulertzea oztopatzen du erabat. Egileak emaitza ezberdinak ordenatu du datari erreparatu gabe, baizik eta lortutako denboraren arabera. Emaitza honako hau da:




**1983ko ekainak 11**




1983ko ekainak 12an –23. orr– 'Sole' batek sinatuta, Argentinaren kokatzaile bat marrazten du estilo proprio batez, eta, bestaldetik, 1986ko martxoak 10ean 'Arantza Alza' sinadurapean adinarekin pairatu ditzakegun gaixotasunak azaltzen dira infografiko batean. Bi emakume hauen beste infografiko edota artikulurik ez dugu aurkitu egunkariaren bizitza osoan zehar. Astebete geroago (ekainak 18an, 12. orrialdean) Ángel Arribak berriro infografiko bat sinatuko du, kasu honetan Europar Batasunaren inguruko hauteskundeei buruzko inkestekin.

Bestaldetik, mapen berrerabilpen hutsa ikusten dugu batzutan urte honetan zehar (adib. ekainak 28an 17. orrialdean, Chad herrialdeari buruz).

Lehiakidea zen 'La Gaceta del Norte'-n 'Tomás Ondarra' ilustrazio lanak eta zenbait infografiko burutzen zituen bitartean, 'El Correo'-k ez zeukan halako profesionalik 'Pintor Losada' kaleko bere egoitza berri hartan Ergüin alde egin zuenetik. Honen falta oso nabarmena izan zen 1985an Euskadik bizi duen katastroferik handienaz egunkariak informatu beharra izan zuenean.

Urte horretako otsailak 19an, Madriletik Bilbora zetorren Iberiako 'Boeing 727' batek Oiz mendiaren tontorrean porrot egin zuen lurreratze maniobra burutzen saiatzen zenean goizeko 7.47etan. Istripuan 148 pertsona hil ziren. Kazetariak bertaratu ziren eta egindako jarraipen grafikoa –telebista zein argazkiekin– oso sakona egin zen.

Garai hartan 'El Correo'-k ez zeukan infografiagilerik plantilan. Baziren ia zortzi urte jadanik Emiliok egunkaria utzi eta grafikorik egiten ez zituela eta zuzendariak –oraindik Antonio Barrena bazegoen zuzendaritzan– deitu zion pertsonalki megagrafiko bat prestatzeko. Garai hartan Sondikakoa zen aireportuak informazio txostenak bidali zituen egunkarira baita aparteko koaderno bat ere pistarako hurbiltze norabide guztiak azalduta. Ez zen normala horrenbesteko informazioa eduki ahal izatea. Istripua hain goiz gertatzeak informazio eta dokumentazioaren bilaketa erraztu zuen. 24 orrialdeko gehigarri berezia publikatu zuen 'El Correo'-k ondorengo egunean. Zuzendaritzaren erabakia izan zen lehenengo aldiz bi orrialde nagusiak betetzea megagrafiko batekin –azalorria zein azkenengoa–*.




**1985ko otsailak 20**

Berau egiteko Emiliok ezin zuen erabili beste erreferentzia bisualik bere imajinazioa baino. Aireportuko informazioa eta istripuaren inguruko lehen informazio guztiak jasota Bilboko inguruneko mendiak marraztu zituen eta bertan gertakariaren datu nagusiak isladatu zituen. Erredakzioan zuzendu egin zuten eta inolako aldaketarik gabe "ondo dago, publikatzeko prest" bueltatu zioten.

Barrena zuzendariaren eskaerari erantzuteko fabore pertsonal bezala eta griña profesionalagatik hartu zuen Ergüinek enkargua. Berez, ezer ez kobratzea ere eskeini zion zuzendariari. Barrenak, ordea, ordaintzea nahiago zuen "arestian pasatutako urritasun aldiak pasata" zirela esanez.

Egun hartan ere barrukaldeetan infografiko txikiago eta sinpleago bat ere prestatu zuen Ergüinek lurperatze maniobraren maparekin

## 5.2.- Lehenengo infografiagilearen kontratazioa. Tomás Ondarra

Oiz mendiko istripuarekin pasatutako eskarmentu honek infografiagilea kontratatzearen beharraz konbentzitu zuen zuzendaritza. Egunkariak garai hartan ia infografiko propriorik ekoizten ez zutela esan genezake. Bataz beste hilabetero laupabost mapatxo edota testu taula baino ez zituen argitaratzen egunkariak. Gabezia ezin argiagoa bilakatzen zen berri berezien kasuan. Adibidez, 1986ko urtarrilak 10ean argi eta garbi infografikoa beharko lukeen berria gertatzen da Polizia Nazionaleko 'GEO'-ek askatu zutenean ETA banda terroristak bahituta mantentzen zuen Athletic Club futbol taldeko agintaria Juan Pedro Guzmán Uribe. Inpaktu handiko gertakaria izan arren eta naturaz adierazpen grafikoa eskatzen bazuen ere 'El Correo'-k ezin zuen grafikorik publikatu. Bi egun geroago, ordea, sinadurarik gabeko marrazki sinple batekin azaldu zuten erabilitako zuloaren forma eta itxura.

Bestaldetik, garai hartan 'EFE' berri agentziak bidaltzen zituen nortasun grafikorik gabeko infografiko sinpleak erabiltzen zituen 'El Correo'-k. Gehienetan atzerritik iritsitako 'United Press International' agentzia estatubatuarrarenak, gazteleratuta.

Urte bereko martxoaren 12ean Espainia 'NATO' nazioarteko organizazioan sartzeko erreferenduma ospatu zen eta osteko egunean infografiko bildumatxoa publikatu zuen egunkariak. Halako egun garrantzitsu honetarako prestatutako material guzti horrek tailerretako pertsonalgoak prestatu zuen, erredaktoreek behatuta, baina, berriro, profesional aproposen partehartzerik gabe.

Hauxe zen panorama 1986 huraren neguan 'El Correo'-k infografiagile bat kontratatzeko lehenengo pausua eman zuenean. Antonio Barrena zuzendaritzan ziharduen garai hartan, Antonio Guerrero zuzendariorde bezala eta haiekin batera, Ángel Arnedo eta López Redondo. Bilboko 'Campo & Ochandiano' pertsonalgo hautatze konpaniak hartu zuen enkargua lan eskaintza publikatu eta hautaketa prozesua jarraitzeko. Tomás Ondarrak gogoratzen du anekdota bezala nola lehen hitzordu hura ahaztu egin zitzaion eta berriro pertsonalki deitu behar izan zioten elkarriztatzeko. Bere 'portfolio' pertsonala eraman zuen Tomásek entrebistara. Hilabetero berrogei mila pezeta inguru kobratzea zen paktua. Ángel Arnedo izan zen, hain zuzen, Tomás Ondarrari ongi etorria eman eta bere lehen jesarlekua prestatu ziona. Ondarraren aurretik ez zegoen marrazkigile finkorik egunkarian eta bere lekurik zein izango zen ez zuten pentsatuta ere lehen egun haietan. Erredakzioko komunetarako atearen ondoan mahai batean jarri eta bertan geratu zen lehen urte haietan, telefonozainen atzean eta argazkigintza artxiboaren artean geratzen zen espazioan. Denbora askotan zehar kokapen bitxi hark "bizitza soziala handia eman zidan" erredakzioaren kideen artean, "guztiek pasatu beharra baizuten nire alboan komunera joatean".

Lehenengo hilabete haietan bere betekizuna egunkarian oso gutxi definitua zegoen. "...'Infografia' hitza erabili izan banu inork ez luke ezta ulertu ere". 'La Gaceta del Norte'-n oraindik idazmakinak erabiltzen baiziren eta 'El Correo'-n, ordea, lehen ordenagailu haiek –pantaila beltzak eta testua berdez–, hau da, jauzi teknologikoa bazen, baina infografiari begira oraindik oso atzean.

Ian jardunaldi arrunt batean, eguraldiaren mapa egin eta gero mahaitik mugitu eta erredaktoreen bila zihoan, enkargu bila edota egindakoaren bertsio ezberdinak eskaintzera (bere hitzetan 'saltzen saiatzera'). Bestela, denbora gehiena karikaturak zein zenbait ilustrazio egiten pasatzen zuen. Lehen ilustrazioak abuztuaren amaieran ospatzen zen Bilboko Aste Nagusiaren inguruko gehigarri berezirako prestatu zituen, hain zuzen.

Hemen dugu, ordea, bere lehen infografikoa. Petrolio-ontzi batek Golko Persiarrean pairatutako eraso baten kokapena azaltzen du. Marrazkia inolako ordenagailurik erabili gabe burutu da, ez ordea, testu kutxak. Hauxe da aplikazio informatiko modernuak iritsi baino lehen erabilitako teknika infografiko hau egiteko:


NACIONAL 17

Dos aviones iraníes bombardean un petrolero, con 34 españoles a bordo, en el Golfo Pérsico

El ministro de Sanidad busca un nuevo clima en la relación con la Organización Médica

ABAO
XXXV TEMPORADA DE OPERA
TEATRO COLISEO ALBIA - BILBAO 1986

1986eko abuztuak 21



El petrolero atacado se dirigía hacia Singapur.

### 5.2.1.- Infografikoak eskuz burutzeko prozedura

1.- Zirriborroa arkatzez prestatzen zen paper arrunt batean.

2.- Argi-mahaia erabiliz, kalitate handiagoko paperean tintazko 'rotring'-era pasatzen zen

3.- Ondo prestatu beharra zen aldez aurretik zein hitz eta testu kutxak sartuko lirateke

4.- Ordenagailu batean hitz eta zenbaki guzti horiek idatzi zerrenda batean (zenbakiak, banan bana, kaleen izenak, etab.)

5.- Testu zerrenda hori tailerrean inprimatzen zen. Hau da, normalean erredaktoreen testuak –galeradak– irtetzen ziren makina berberatik, grafikorako prestatutako testuak agertzen ziren argazkigintzako paper gogor eta distiratsuan.

6.- Testuen orrialde huraren atzekaldean itsasgarri kapa bat aplikatu eta mahaiara finkatu. Kola leun honen funtzio bikoitza orrialdea eustea zen, eta aldi berean papera pegatu eta despegatzea posiblea egitea.

7.- 'Cutter'-arekin banan banan hitz guzti horiek horizontalki kortatu. Pentsa dezagun ekonomiaren inguruko infografiko batek hainbat zifra solte beharko lituzkeela –bakoitza milimetro batzuetako espazioan inprimatuta– eta guztiak geratzen ziren mahaiean moztuta eta pegatuta. Despegatuta izateko eta berriro grafikoaren tintazko bertsioan erantsiak izateko prest.

8.- Nahiko denbora bazegoen, trama grisak jarri zitezkeen grafikoaren gainean. Horretarako beharrezkoa zen prozesu gehigarria. Alde batetik Fotomekanikako atalean argazki bat egin grafikoari –testuak gehituta–.

9.- Itxaron fotografia hori errebelatuta izan zedin eta berriro marrazkigintzako mahaiera bueltatu, non trama gris haiek bai goitik pegatu zitezkeen –errebelatutako bertsio honek pegatutako ezer ez zeukanez, paperak ez zekarren erlieberik. Honela bai pegatu zitezkeen 'Letraset'-eko plastikozko trama gris haiek marka itsusiak utzi gabe–. Trama haiek berriro 'cutter-a erabiltzen moztu beharra ziren behar bezalako forma utzi arte. Garai honetan ikusten badugu trama grisak daramaten infografikoak, horrek esan nahi du denbora gehiago dedikatu ahal zaiela.

Denbora askorik ez bazegoen, ordea, tramarik ezin zitzaion erantsi grafikoari. Kasu horieta eskuz marraztu beharra zen trama, gehienetan marraz marra. Hurrengo bi adibideak Tomás Ondarrak 'El Correo'-n sinatutako bigarren eta hirugarren infografikoak ditugu.



12 INTERNACIONAL

Pretende evitar la inmigración de personas que salen de su país por hambre o miedo a la guerra

El Gobierno de la RFA elabora medidas para restringir la entrada de exilados políticos

La URSS renuncia al espectacular proyecto para desviar los grandes ríos siberianos

Nueva orientación de los objetivos

1986eko abuztuak 23




Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna zuriz eta gainontzeko lur guztia plastikozko trama batez osatua dago. Horrek esan nahi du marrazkiaren gainean pegatu eta eta gero, 'cutter' batekin silueta osoa mozteko denbora izan duela. Itsasoa eta gainontzeko ura, ordea, eskuz marraztutako marra horizontalez bete ditu.



EL CORREO ESPAÑOL
EL PUEBLO VASCO

Los pescadores españoles, junto con rusos y portugueses, enemigos públicos de Terranova

Rafael Ramos

DON CELES

1986eko abuztuak 24

Testu kutxak eskuz moztu eta itsatsita (ik. hurrengo orrialdea)




*La mayoría de la gente que vive en los seis centenares de comunidades que se extienden a lo largo de las costas de Terranova y la Península del Labrador son pescadores.*

Bere hirugarren infografiko honetan trama ilunago batez baliatu da iparamerikako lurra destakatzeko. Ura, ordea, eskuz marraztutako marra irregularrez bete ditu. Berriro, lan jardunaldi hartan grafikoa prisarik gabe burutu egin zituelaren froga dugu erabilitako tramen metodo hori.

Tailerreko teknikoek egunkariaren orrialdean zuzenean pegatzen zuten grafikoa inprimatua izateko. Halabaina, nola egunkariko orrialde osoaren gainean beharrezkoa zen beste argizari bat ematea tailerrean arrabol batekin presionatuz, arriskua zegoen grafikoaren gainean pegatutako testu haiek mugitu edota askatzea ere. Hala gertatzen zenean, posiblea zen grafikoko zifra edota beste edozein testu kutxa egunkariaren orrialdearen beste edozein posizioan inprimatuta agertzea. Horregatik, askotan, derrigorrezko segurtasun neurria zen zelofan-zerrendatxoak gainetik gehitzea, pegatutako testu haiek babesteko. Berriro, banan banan.




Aurreko orrialdeko bigarren grafikoaren xehetasun honetan argi ikusi daiteke testu kutxen itxura errekortatua, eskuz mozten baiziren gero fisikoki paperaren gainean pegatuak izan ahal izateko. Kasu honetan, gainera, plastikozko trama grisa ere moztu behar izan da testu kutxa hauen gainean

Guzti hau kontutan hartuz, ulergarria da nola behin grafikoa hasia zenik tamaina batetara kalkulatuta, neurriak ezin aldatu zitzaizkion. Baina akats edota testu aldaketarik beharrezkoa bazen, prozesu konplexu huraren zenbait fase berriro errepikatzeak denbora asko eramaten zuen. (Testu berria inprimatu, moztu, trama kendu, berriro pegatzeko, etab.).

### 5.2.2.- 'Zoom'-ak eta geziak nagusi

Ikusi dugunez, Lehenengo hiru infografiko hauetan kokapen geografiko bat da destakatutako elementu nagusia eta, honekin batera azalpen gehigarri askorik erabili gabe, istorioaren funtsa ikonoen bitartez deskribatzen da. Handitutako area edota 'zoom'-aren presentzia erabiltzearen garrantziaz konturatzen da Ondarrak lehen egun haietan. Azpimarratzekoa da nola infografiko guztietan errekurtso honetaz balio zen bilbotarrak. Beti zirkulu batean eta berau gehienetan lerro lodi beltz batez ezberdinduta. Ohitura edota estiloa hartuta, mapa guztiek derrigorrez 'zoom' batez hornitzen ari ziren beti. Hain zen markatua joera hau, ezen gehiegikeria ere bihurtu zen. Honen adibide honako beste bi infografiko hauek ditugu:

Lehenengo honetan, zabaldutako area eta mapa nagusia ia enkoadraketa berbera daukate, beraz lehenengoak ia ez du informaziorik gehitzen. Soberan dago argi eta garbi. Egileak bere lehen lan haietan utzitako eragina indikatzeko obsesioa baino ez du isladatzen.



18 INTERNACIONAL EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO viernes, 27 marzo de 1987

Alfonsín desea que el polémico proyecto sea realidad al final de su mandato, en 1989

**El Senado argentino aprueba el traslado de la capital del país a la ciudad sureña de Viedma**

El proyecto quizá más ambicioso del presidente de Argentina, Raúl Alfonsín, esta en vías de hacerse realidad: el Senado de aquel país ha aprobado el traslado de la capital de la República a Viedma, una pequeña población de apenas 30.000 habitantes, ubicada en la provincia sureña de Río Negro, a algo más de mil kilómetros de Buenos Aires. El traslado es motivo de polémica en Argentina y exigirá un gasto calculado entre 4.000 y 14.000 dólares.

Santiago Palacios

Raúl Alfonsín

Rescate de uno de los escolares a través de una ventana.

La acción no tenía motivaciones políticas, a juicio de las autoridades

**Se entrega la pareja que tuvo secuestrados a casi mil niños en una escuela salvadoreña**

**CHILE, ANTE LO IMPREVISIBLE**

**Indicios de que Stroessner pretende prorrogar su poder dictatorial en Paraguay**

**1987ko martxoak 27**



Bigarren honetan, ordea, handitze hirukoitza egiten du Tomásek. Marraztutako azken handitze lupan ez dago informaziorik, ilustratzeko ikonoak bakarrik, baizik. Bi ezaugarri hauek –zoom hirukoitza alde batetik eta ikono hutsak handitutako azken lupan– ez dira askotan errepikatuko. Erakusten digute nola egileak mapak marrazteko ohitura bat hartuta zuen eta oraindik posibilidade berriekin frogatzeko ez zela ausartzen. Beste alde batetik, mapa kartografiko huts bakarrik ez zirela demostratzeko obsesioa zeukala. Ilustratzailearen helburua bere eskua agertaraztea eta inbertitutako lana azpimarratzea zirudien.


16 INTERNACIONAL

El contencioso de Taba hace muy difícil que Peres y Mubarak se reúnan mañana en Egipto

Ahorcados en Pretoria tres negros miembros del Congreso Nacional Africano

UNIVERSIDAD DE DEUSTO EUSKARA CURSO 1986-87

UNIVERSIDAD DE DEUSTO

10 DE SEPTIEMBRE: FIESTA DEL HERMANO GARATE

Fundamentalistas islámicos asumen el secuestro de un norteamericano en Beirut

1986eko irailak 10




Hiru 'zoom' maila ezberdin aurkezten dira hemen, azkenengoan informaziorik ez sartzeko. Kartografia hutsetik ezberdintzea zirudien helburu hutsa. Bestaldetik, zuri beltzezko grafiko honetan zurietaz aparte, beste bost trama ezberdin erabilita (kontinenteko lurra, ozeanoak, gezien barrukoa, lehenengo 'zoom'-aren barruko urak eta bigarrenaren barruko zerua) irakurtasun oso zailekoa bihurtzen da

Zoom haiekin batera presentziarik handiena zeukan erabilitako errekurtso grafikoa 'geziak' ziren. Berriro bere presentziaz esajeratuz, geziak arreta handiena deitzen zuten. Irakurlea oraindik infografikoei ohitu ez balego bezala, egileak 'irakurtzen' irakatsi nahi zion eta begien norabidea zuzendu behin eta berriz, hala nola maparen zonalde bakoitzarekin beste zerbait erlazionatu. Ondorengo adibide hauek gezi hoien presentzia esajeratua erakusten digute. Halako itxura izan zuten Tomásen mapak egunkarian bere lehen hilabete haietan zehar.


INTERNACIONAL 19

BAÑO DE SANGRE EN KARACHI

El secuestro de un 'Jumbo' de Pan Am en Karachi concluye con al menos 15 muertos y más de cien heridos

La tripulación escapó por el sistema de emergencia

1986eko urriak 6




*El vuelo de Pan Am, que había partido de Bombay con destino a Nueva York, tenía escalas en Karachi, donde fue secuestrado, y en Frankfurt.*

## 5.2.3.- Lehen 'Breaking-News'

Abuztuan egunkarian lanean hasi eta handik bi hilabetera –urrian– eguneko gertakari baten eskena bat lehenengo aldiz marraztu behar zuen. Bi euskal terroristek komando batek familia oso bat erahil zuen Donostian bonba batez. Gipuzkoako hiriburutik zebiltzaten beste zortzi pertsona larri zaurituak izan ziren. Hauxe dugu atentatu baten inguruan infografista batek egindako lehen grafikoa 'El Correo'-ko aro modernuan.


16 REGIONAL
ATENTADO EN SAN SEBASTIAN

**Asesinados el gobernador militar de Guipúzcoa, su mujer y un hijo al estallar una bomba en su coche**

**Ingresadas ocho personas, una de ellas muy grave, en los centros clínicos donostiarras**

**1986ko urriak 26**

**1**.- Titulurik ez

**2**.- Kokapen planorik ez

**3**.- Komikiaren antza duten globoak azalpenak gehitzeko

**4**.- Bi mota ezberdinetako gezi handiak eta deigarriak

**5**.- Sinadurarentzat lekurik ezagatik, egilearen izenarentzat erabilitako espazioa Donostiako beste kale baten izena bat dirudi.

**6**.- Nahiz eta atentatuaren momentuan Donostiako Boulevarra jendez beteta egon –beste hamairu pertsona zaurituta gertatu ziren– marrazkian ez dira agertzen. Berauen kokapenak jakin ezinean eta xehetasun gehiegitan ez sartzea zirudien helburua. Bestaldetik, xede hau ere somatzen da argazki oinaren erredakzian. Honek esplizituki aditza hipotetikoan erabiltzen baitu, honela "...gertatu izan zitekeen..." eskena adierazten baitu.



### 5.2.4.- Lehen estatistikoak

Momentuz grafiko guzti hauek letra larrizko 'T. Ondarra' soil batez sinatuta zeuden, izen osoa oraindik agertu gabe.

Esanguratsua da ere nola mapa moduko infografiko guztietan titularrik ez zituen ipintzen Tomásek. Orrialdearen gainontzeko elementu testualak grafikoari testuinguru funtzioa emanda, maparen zentzua ulertutzat ematen zuen ilustratzaileak eta aurretiko inolako azalpenik ez zituen sartzen. Hala ere, hau ez zen gertatzen estatistikako infografikoen kasuan. Hauetan bai kontsideratzen zuen beharrezkoa sarrera moduko titularra indikatzea. Eraberean, testu handi hau nola aurkezteko era anitzekin frogak egingo ditu hasieratik. Kasu honetan, adibidez, elementu askorekin apaindu saiatu da. Egunkarien gainontzeko testu kutxetatik erabat ezberdina izan nahi duen errotulua dirudi.


REGIONAL 17

SUELDOS ANUALES EN EL GOBIERNO VASCO

| MILLONES DE PESETAS | 1981 | 1982 | 1983 | 1984 | 1985 | 1986 | 1987 | 1988 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| LEHENDAKARI | 5,2 | 5,6 | 6,1 | 6,5 | 7 | 7,7 | 8,1 | 8,4 |
| VICELEHENDAKARI | | | | 5,7 | 6,1 | 7,2 | 7,6 | 7,9 |
| CONSEJERO | 4,2 | 4,5 | 4,9 | 5,3 | 5,6 | 6,8 | 7,1 | 7,4 |
| VICECONSEJERO | 3,8 | 4,1 | 4,5 | 4,8 | 5,1 | 6,1 | 6,4 | 6,6 |
| DIRECTOR | 3,1 | 3,3 | 3,7 | 3,9 | 4,2 | 5 | 5,2 | 5,5 |

T. ONDARRA

asta el esores, robada 69 son los que cubrir, Admi- tarios, ólo tres tienen existe

El que l depar- caciones y relaciones externas así como un director general de prensa y publicidad. En Elguezabal, director de tráfico; José Joaquín Portuondo, director de juegos y espectáculos;

**1988ko otsailak 28**

Lan mordo hura zela eta, ekonomiako grafiko aurrikusgarrien urte osorako txantiloia prestatzen zuen Ondarrak urtarrilean. Bertan KPI edota langabeziko lehen hilabetetako estatistikarekin batera, urtearen gainontzeko hilabeteentzako lekua utzik prestatzen zuen. Ilustrazio batekin estaltzen zuen eta gero, urtea aurrera joan ahala eta berriro birpublikatzen zen grafiko berbera, ilustrazioa eskuinerantz mugitu eta espazio horretan hilabete berrien estatistika marraztu.

KPI-ren inguruko beste infografiko honek itxura apurgarria zeukan oso. Trama grisa behetik ipini beharrean (hazten diren kantitateak adierazteko) goitik jarri du, hau da, kantitateen kanpokaldetik. Arrazoia teknikoa da; Tomasék nahiago izan du argitzea testurik inportanteenak betetzen dute zonaldea, eta iluntzea gainontzekoa, 'fiebre'-tik kanpo geratzen den espazioa, baina efektua kantitateen ulertze intuitiboaren kontra dihoa ('dagoena' hutsik utzi eta 'ez dagoena' beteta ipintzean). Horregatik hortik aurrera ez zen halako formularik berriro errepikatuko.

Grafikoen sinadurak kokapen finkorik ez edukitzeaz aparte, 1987ko uztaileko orrialde honetan bi agertzeak beste ezaugarri esanguratsuak ere adieraztte dizkigu; KPI-ren inguruko grafikoaren trama grisaren posizioa ezin arraroagoa da. Normalena baita datuen fiebreak okupatutako espazioa ilutzea, eta ez kanpokoa. Kasu honetan datu berriak behetik adierazten zirela izan daiteke arrazoia; Tomásek testu kutxa horiek fisikoki moztu eta pegatu behar zuenez, esfortzurik txikiena eta irakurgarritasun altuena eskaintzen zuen aukera hautatu zuen.

Orrialde berean, infografiko batek titularra darama eta besteak ez



La construcción del nuevo tramo entre Brazatortas y Alcolea permitirá a los trenes Madrid-Córdoba-Sevilla circular por Ciudad Real, en vez de hacerlo como hasta ahora por Alcázar y Baeza. Esto supone un considerable acortamiento del recorrido.

Las obras finalizarán antes de 1992

El Gobierno aprobó la inversión de 36.000 millones para el nuevo acceso por ferrocarril a Andalucía

MADRID. Europa Press. El Consejo de ministros, reunido ayer por la mañana en el palacio de la Moncloa, aprobó, entre otros asuntos, la respecto de la situación actual. En el año 1992 el trayecto Madrid-Sevilla se recorrerá en 2 horas y 48 minutos frente a las casi 6 horas que

El descenso del capítulo de alimentación compensó la subida de los restantes epígrafes

La tasa anual de inflación se sitúa en el 4,9 % debido a la estabilización del IPC en junio

La tasa anual de inflación está ya por debajo del 5 por ciento, después de que el IPC no registrara variación alguna en el mes de junio. Ese indice 0 del pasado mes se debe al descenso en el capítulo de alimentación, que ha servido para contrarrestar las subidas de los demás epígrafes que componen el IPC.

María José Alegre

MADRID. Colpisa. El índice de precios al consumo no experimentó variación alguna en el mes de junio. Gracias a esta congelación de los precios la inflación se sitúa en tasa anual una vez concluido el primer semestre del año en el 4,9 por ciento, una décima menos del objetivo previsto por el Gobierno para el mes de diciembre. Guillermo de la Dehesa, secretario de estado de Economía, destacó en su comparecencia ante los medios de comunicación los dos factores decisivos en este favorable comportamiento de los precios. Por un lado, la caida de los precios de productos agrícolas por tercer mes consecutivo; por otro, la colaboración de las importaciones para combatir posibles tensiones inflacionistas en el componente no alimenticio.

No obstante el optimismo que pudieran inspirar estas cifras, el secretario de Estado

LA EVOLUCION DEL I.P.C.

En el gráfico se observa el nuevo trazado, que significa una sustancial reducción de kilómetros.

0,3 por ciento los servicios sario –declaró– se tomarán valenciana. Los precios cre-

**1987ko uztailak 18**

Eraberean, adibide berberan ikusten dugu argazki oinarria erabat erratuta dagoela, '**kilometroak**' aipatzen ditu, ezkerreko grafikoari baitagokio. Gogoratu behar dugu garai hartan 'WYSIWYG' moduko aplikazio informatikoak ez zirela oraindik erabiltzen, baizik eta konputagailuak non behin testua idatzita, erredaktoreak indikatu behar zion ordenagailuari zein izango zen hitz horien lekua, baina ezin zuen fisikoki ikusi pantailan.

Grafikoen sinaduraren kokapen aldagarria zen oso

## 5.2.5.- Ilustratzaile bezala ere trebea

Tomásen trebezia ilustratzaile bezala somatzen hasten da jadanik Euskal Legebiltzarrerako hauteskundeen inguruko inkesta baten inguruko datuak isladatzerakoan lau protagonista nagusien karikatura hauek prestatzean.



**1986ko azaroak 23**



# 5.3.- ‘El Correo’-ko Infografia departamentuaren jaiotza

Uztailean Iruñeako lehen bilera huraren ostean profesionalen talde honen helburua argia zen; erredakzioetan zer egiten zen konpartitzea eta elkarrekin ikastea. Ordenagailu berriekin gertatzen ari ziren lehen arazo haiek konpartitu, banatzaileekiko erlazioa, eta programa berriak deskubritzea. Bilerekin batera, EE BBetako 'USA Today' zein 'National Geographic' bezalako egunkari eta aldizkari inportanteerako bisitak ere prestatu ziren.

1989ko azaroak 19aren gauean Madrilgo Alcalá hotelean Herri Batasuneko diputatua Josu Muguruza hilda eta bere kidea Iñaki Esnaola zaurituta gertatu ziren bi ultraeskuindarrek tirokatu ondoren. Hain berri garrantzi baten aurrean, egunkarian ez zegoen Tomás Ondarra infografiagilea –egun hartan Madrilgo 'SND'-ko bilera batean baizegoen, hain zuzen– eta grafikoa Garay ilustratzaileak marraztu behar izan zuen.

Emaitza ikusita, pixkanaka Ángel Arnedo konturatzen hasiko da beharrezkoa dela bigarren infografiagile bat kontratatzea. Kazetariak istorioak kontatzeko teknika berriari ohitzen ziren ehinean gero eta grafiko gehiago eskatzen ziren. Gainera, 1990 urtean Italian jokatu behar zen Munduko Futbol txapelketaren fase finala zela eta, Espainiako egunkari guztiek infografia aldetik zerbait berezi prestatzeko griña handia erakusten zuten. Alberto Torregrosaren Arcadia Madrilgo estudioarekin batera magazine bat eta guzti, eta lan bolumena asko igoko da infografiagile bakar batentzat. Guzti hau dela eta, 1990an egunkariak lanpostu eskaintza luzatu zuenean hautaketa prozesua gainditu eta udaren aurretik Zarracina kontratatu eta Ondarrarekin batera lan egiten hasiko dira.

Aipatu bere lehen mahai hartatik kendu eta lehenengo aldiz egunkariko leku finkoago bat instalatuko da 'Infografia' departamendua, bi bilbotar hauek osatuta, lehioen ondoko mahai handiago batean, bulego moduko tankera zeukan zonalde apartatu batean.

Deigarria da oso nola datu taulen prestaketan oraindik infografiagileen partehartzea minimoa zen. Honela, nahiz eta 1990an jadanik infografiako atal garatu baten aurrean gauden, eta grafikoak kazetaritza irizpideekin prestatzeko kapazak diren profesionalek osatuta, datu taulak oraindik tailerretako muntatzaileek aurrera eramaten zuten. Adibide huetan agerian gertatzen da grafikoen departamentuetatik kanpo geratzen zirela.




**Irudia 1**
'El Correo'-ko infografia ataleko kideak
**Iturria**: Berezko elaborazioa

## Tomás Ondarra (Bilbao, 1963)

'El Correo'-k kontratatu baino lehen Tomás Ondarrak 'La Gaceta del Norte'-rako egiten zuen lan marrazkigile bezala komiki binetak prestatzen. 1986ko udan lan eskaintza ikusi zuen prentsan –non marrazkigilea bilatzen zela adierazten zen bakarrik–. Hautaketa prozesua gainditu ondoren 'El Correo'-k fitxatu zuen. Tomáse, beraz, ez zuen inolako praktikak edota hezkuntza prozesurik pasatu, baizik eta zuzenean kontratatua izan zen.

1989an, Pedro J. Ramírez kazetari errioxarrak Madrilen 'El Mundo' egunkaria martxan jartzeko proiektua prestatzen ari zenean, Tomás Ondarrari eskaintza luzatu zion bertan infografiagile bezala aritzeko. Hala ere, 'El Correo'-n geratzea nahiago zuen bilbotarrak. Urte hartan ere Javier Zarracinak bere lehen uda lan egin zuen egunkarian. Honela, lehenengo aldiz 'El Correo'-ko 'marrazkilaria'-k ordezkaria bat izan zuen.

Urte horretan ere Juan Antonio Ginerrek Nafarroan sortutako 'SND-e'-k antolatutako lehen mintegietara joan zen. Bertan lanbideko kideengatik lortutako informazioa eta kontaktuak eragin oso handia izango zuten hurrengo urteetan bere ibilbide profesionalean baita Espainia osoko infografian ere.

Jarraian, hurrengo urteko udan bigarren marrazkigile bezala Zarracina kontratu zutenean lehenengo aldiz 'infografia' atala sortu zen egunkarian eta ondorioz Tomásek 'atalburua' bilakatu zen. Postu horretan iraun zuen hurrengo sei urte eta erditan zehar. Epe labur batez –1992ko bigarren seihilabetean zehar– Cristina Murekin ere koinziditu zuen eta 1993tik aurrera Fernando Baptistarekin ere. Aitor Eguinoa 1995 eta 1996an ere bere agindupean izan zuen, eta bilbotar hau Argentinara joan zenean, Ondarrari bere hurrengo abiapuntuari bidea ireki zion.

1997an Buenos Aireseko 'La Nación' egunkariaren lan eskaintza onartu eta Argentinera bizitzera joan zen. Han hiru urtez zuzendu zuen bertako infografia atalean. Hauetako bat Eguinoarekin batera.

2000 urtean Mario Tascón 'El Mundo.es' utzi eta Prisa komunikazio taldera pasatzen denean, Tomas Ondarrari eskaintza luzatu zion Madrileko 'El País' egunkarira etortzera. Erronkari baietza eman eta bertako infografiako erredaktore burua dugu harrezkero. Bertan infografiako departamentua organizatu eta grafikoak burutzeaz gain, ilustratzaile nagusietarikoa dugu ere. Urte horietan 'El País'-en grafikoek nazioarteko sari anitz jaso dute, haien artean 'Peter Sullivan' bat. Tomásen estilo proprioa emanda, Madrilgo egunkaria infografia neurriduna eta analitikoaren erreferentea da Espainiako prentsan.

Ilustrazioarekin batera, Tomás Ondarrak pinturarekiko bere zaletasuna mantendu du eta azken urteotan erakustaldiak ere prestatu ditu. Besteak beste 'La Mar de mares' (2010) Madrilen eta Bilbon, hala nola 'De Bilbao de toda la vida' (Bilbao, 2009).



Beste kiderik gabe lan egin zuen infografiagile bakarra izan zen Ondarra (lehenengo lau urtetan zehar)

## Javier Zarracina (Bilbao, 1966)

Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio Fakultatean Kazetaritzako ikasketak 1987an burutu zituen. Karrera bukatzear zegoela, marrazketa ikasketak hasi zituen Santutxu auzo bilbotarreko 'Unzalu' estudioan. Bertan ezagutu zuen Tomás Ondarraren emaztea eta honela jakin zuen ‘El Correo’-rako lanpostu batentzako hautaketa prozesua publikatu zuela.

Tomás Ondarrarekin batera lan egin zuen lehen infografiagilea izan zen. Bere alboan aritu zen 1997 arte. Urte horretan, Ondarrak egunkaria utzi zuenean, ataleko buru bezala geratu zen 7 urtez. Momentuz 'El Correo'-ko infografia atalak izan duen atalbururik iraunkorrena. Bere agindupean ‘El Correo’-k 27 domina irabazi zuen 'Malofiej' infografiako nazioarteko sarietan.

‘El Correo’ egunkariak 2000 urtean izan zuen birdiseinu osoko prozesuan zehar Vocento komunikazio taldeko infografiako lehen ‘Estilo liburua’ prestatu zuen. Bere ezaugarriak eta itxura grafikoa indarrean mantendu zen 2009 arte.

2000 urtean Madrilgo 'El País' egunkarian lan egiteko eskaintza jaso zuen, eta bi urte geroago 'The New York Times'-ek ere eskaintza luzatu zion, baina biak errefusatu egin zituen.

2002an zehar Madrilgo ‘ABC’ egunkariaren birdiseinu lanetan aholkulari bezala aritu zen ere. 'Innovation' aholkularitza agentziako kide bezala Bartzelonako 'La Vanguardia' (2006), Sofiako 'Capital Weekly', (Bulgaria, 2005/06), Amsterdameko 'De Financiaale Dagblat' (Holanda, 2005), Aucklandeko ‘New Zealand Herald’ (2005) eta Pariseko 'Le Monde'-rentzat (2005) aholkularitza lanetan aritu da.

Eraberean, Unibertsitate irakasle bezala aritu zen Iruñean Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatean, non 'Infografia' irakatsi zuen 2003an zehar, baita 'El Correo-UPV/EHU' Kazetaritza Unibertsitate-masterrean 1998tik 2002ra arte.

Honekin batera nazioarte mailako beste zenbait mintegi ere prestatu zituen; besteak beste Universidad Don Bosco (El Salvador) 2003ko ekainean.

2004ean 'El Correo' utzi eta Estatu Batuetara joango da lan egitera, Californiako 'San José Mercury News' egunkariaren eskaintza onartuta. Bertan bi urte pasatu ondoren Bilbora bueltatu zen Vocento taldeko infografiako atal zentralizatua martxan jartzeko enkarguarekin. Proiektua ez zen aurrera atera eta bi urte geroago, 2007an, berriro Estatu Batuetako beste egunkari batetatik eskaintza iritsi zitzaion. Kasu honetan 'The Boston Globe' egunkariak luzatuta. Bertan jarduten da harrezkero infografiako departmenduko atalburu bezala.



Zarracina atalburu bezala denbora gehien aritu den infografiagile dugu (7 urtez)

**Cristina Mur Herrero (Bilbao, 1967)**

1985etik 1990ra Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederrak ikasi eta lizentziatu zen. 1992ko Bartzelonako Joku Olinpikoek ekarriko luketen lan karga handia zela eta, udan Javier Zarracina eta Tomás Ondarrak laguntzaile baten bila zebiltzaten 'El Correo'-n lan egiteko. Honela kontaktatu zuten Cristinarekin eta seihilabete baten zehar egunkarian aritu zen infografiagile bezala. Jarraian Espainiako Kultura Ministeritzaren beka bat lortu eta bi urtetako 'Multimedia Interaktiboko Europar Masterra' ikasi zuen da Palma de Mallorcan 1995 eta 1996an.

1997ko urtarrilean, Tomas Ondarrak 'El Correo'-ko bere postua utzi egin zuenean, Javier Zarracina eta Fernando G. Baptistak hirugarren infografiagile baten bila hasi ziren. Berriro Cristinarengana jo zuten eta honela bueltatu zen Bilboko egunkarira bi urtez. 1998ko abenduan, bere lan kontratu ez finkoa bukatzear zegoenean, egunkariko zuzendaritzak erabaki zuen Cristina ez berriztatzea zuzenean, baizik eta bere lanpostua eskaintza publiko baten bidez kubritzea. Enpresa pribatu baten bidezko hautaketa prozesu luze baten ostean, Cristinarekin batera beste bi pertsona iritsi ziren azken fasera; Carlos Zahumenszky –jadanik 'El Correo'-n aritua– eta José María Lema ilustratzaile errioxarra. Azkenean egunkariak azken hau kontratatzea erabaki zuen eta Cristina lan etorkizun berri bati ekin behar izan zion Bilbotik kanpo.

1999an internet hasi berria zen mundu hartan lan egiten hasi zen Prisa Taldeko 'Inicia' konpainian bost hilabetez, urritik otsailera. Bertan arte zuzendari bezala aritu zen. Handik gutxira Prisak 'Inicia.es' atala martxan jarri zuen. Jarraian, 2000ko apirilatik hasita, bi urtez lan egin zuen Coverlink-Razona internet aholkularitza konpainian, berriro arte zuzendari bezala.

2002tik 2009ra arte Indra teknologiako zerbitzuetako Madrilgo enpresan hasi zen kreatibitate eta arte arduraduna gisa. Bertan zazpi urte horiek jarraian aritu eta gero 'freelance' bezalako azken etapa hasi zen, bere ekoizpenak enpresa ezberdinei eskainiz baita bere pintura lan proprioak erakusten ere.



Lehen kontratuaren ostean lau urte pasatu ziren Cristina egunkarira bueltatu arte. Hutsunerik handiena dugu hau.

## Fernando Gómez Baptista (Bilbao, 1965)

Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultatean lizentziatua da ere Fernando G. Baptista (1990). Jarraian Doktorego kurtsoak jarraitu zituen 1991 eta 1992 bitartean.

Ilustratzaile ‘freelance’ bezala hasi zen bilbotar honek ‘Alzola y Mayendia’ estudiorako, hala nola Bilboko Erakustazokarentzat zenbait lan eginez eta bi urtez ‘Inem’-erako Autoedizio ikastaro bat irakatsiz.

1993an ‘El correo’-n sartzeko hautaketa prozesua gainditu eta gero infografia ataleko hirugarren kidea bihurtu zen Ondarra eta Zarracinarekin batera. Bere lanak egunkarian ehundaka nazioarteko sari jaso dituzte bai ‘SND-e’-ren ‘Malofiej’ sarietan zein ‘SND’-renak.

2002tik aurrera Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateko irakasle asoziatu bezala ‘Infografia’ irakasgaia irakatsi zuen 2007 arte, Estatu Batuetara joan zenean. Eraberean, 2003tik aurrea ‘El Correo - UPV’ Kazetaritza Digitaleko Masterrean ere irakatsi du infografia bost urtez jarraian.

2003an, Infografiako atalburua zena Javier Zarracina egunkaria utzi zenean Fernando Baptista arduraduna bilakatuko da ‘El Correo’-ko infografia departamenduan. Bere agindupean atalak arrakastarik handienak lortu zituen nazioarte mailan. Esanguratsuena, 2006an ‘Peter Sullivan’ saria jaso zutenean aurreko urtean Juan Pablo II heriotzaren ondoko berriei egindako jarraipen infografikoagatik.

Handik gutxira Fernando G. Baptistak ‘National Geographic Magazine’-ren eskaintza jaso eta 2007ko irailean Washingtonera trasladatzen da lan egitera. Honela betetzen zituen 14 urte egunkarian -infografia atalean gehien iraun duen kidea–.

Arlo honetan zehar ere, Fernandok beste enpresentzako lan ikusgarriak prestatu ditu, hala nola Gernika, Lemoa eta Gueñeseko Udaletxentzat. Hauekin batera, beste zenbait museoentzako panel eta megagrafiko burutu ditu. Haien artean; Bilboko Itsas Museoa, Enkarterriko Museoa, Bizkaiko Arkeologi Museoa eta Santimamineko Museoarentzat.

Bere ibilbide profesionala hain erakargarria izan da hainbeste komunikabiderentzat ezen hitzaldi oparo prestatu behar izan ditu hamarkada honetan zehar. 2003an (Iruñean, Malofiej Kongresuaren barruan), Washingtonen (2003, SND), San José (California, 2004, SND), Iruñean (2006, Malofiej), 2008an (Euskal Herriko Unibertsitatean), 2009 (Venezuelako Capriles talderako mintegia eta hitzaldia 2009), Colonbian (2011, Universidad del Caribe) eta Denver (EE BB, SND kongresuan zehar).



Ia 15 urtez lan egin zuen
Baptistak egunkarian.
Epealdirik luzeena.

**Aitor Eguinoa (Bilbao, 1971)**

Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio Zientzietan lizentziatua, Aitor Eguinoak lehen lanpostua ‘El Correo’-n lortu zuen 1995eko urtarrilean. Egunkari bilbotarraren lehen bekadun gisa aritu ostean, bertan lan egin zuen infografiagile bezala 1996 osoan zehar ere. Bertatik ‘La Nación’ egunkari argentinarrera lan egitera joan zen Tomás Ondarrarekin batera Buenos Airesera urtebetez 1997an zehar.

Hurrengo urtean, 1999an, Madrilgo ‘El País’ egunkariak kontratatu zuen. Bertako infografia departamentuan lan egin zuen bost urtez. Paperezko ediziorako ez ezik, ‘ElPais.es’ webgunerako grafikoak ere burutzen bost urtez, 2004 arte.

Denbora horretan zehar bere lana hainbat aldiz izan da saritua ‘SND-e’-k antolatutako ‘Malofiej’ nazioarteko infografia sarietan. Haien artean, 2001ean lortutako Peter Sullivan sari nagusia.

2004ean ‘El País’ utzi eta bere kabuz zenbait enpresentzat lan egiteari ekin zion. Honela hasi zen prestatzen ere bere hurrengo proiektua, infografia digitaleko agentzia bat martxan jartzea. 2006an Cristián Werb infografiagile argentinarrarekin batera ‘90Grados’ agentzia sortu zuen. Bertan, zenbait komunikabideentzat lan egiteaz aparte, informazioaren mundutik kanpoko beste enpresentzat ere infografikoak prestatu dituzte. Haien artean, Fagor, Gamesa Eólica, Tecnalia Energía, PetroBras, Prisacomk, Bilboko Udaletxea, EiTB edota ‘Eroski Consumer’ aldizkaria.

‘Estudio 90Grados’ agentzia martxan darrai gaur egun. Bere infografikoek 22 urrezko domina, 6 brontzetakoa eta urrezko bat lortu dituzte ‘Malofiej’-etan. Eraberean, Aitor Eguinoa epaimahaikidea izan zen XV. edizioan.

2008tik aurrera Aitor Eguinoa Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatean Infografia Multimediako irakaslea da. Eraberean, Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio Zientzetako Fakultateak eskaintzen duen ‘EITB-UPV/EHU Multimedia Komunikazio’-ko masterrean infografiako irakasgaia irakasten du 2010etik aurrera.



Unibertsitate beka baten bitartez infografia departamentuan sartu zen lehen pertsona dugu Eguinoa.

**Carlos Zahumenszky Hierro (Bilbao, 1974)**

Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio Zientzietan lizentziatu zen Carlos Zahumenszky 1999 urtean Publizitate eta Harreman Publikoko espezialitatean. Ikasketak burutu baino bi urte lehenago ‘El Correo’-ko infografia atalean sartzen da unibertsitate-beka baten bidez. 1997ko urtarrilean. Beka haiek bost hilabetetakoak ziren, eta behin bukatuta eta enpresaren onespena jaso ezkero, uda osorako ere luzatu zitezke-en. Hala gertatu zitzain Carlosi, zeinek lizentziatu baino lehen jadanik lan kontratua lortu zuen 1998tik aurrera.

Ordezkapenak kubritzen, asteburuak betetzen eta kolaborazioak egiten lehen urtebete eta erdi iraun zuen, 1998ko amaiera arte. Garai hartan Cristina Muren lekua libre gerat-zen da eta enpresak antolatzen duen hautaketa prozesuaren ostean José María Lema lor-tuko du lanpostua eta Carlosek bigarren lekua. Baina sei hilabete pasata errioxarrak egun-karia uztea erabakiko zuenez, berriro Zahumenszkyk bueltatzen da egunkarira, non beste bi urte eta erdiz lan egin zuen.

Infografiagile bezala aritzeaz gain, Carlos Zahumenszkyk idazteko bere gaitasun nabaria erakusten zuen, hala nola teknologiarekiko gustu handia. Guztiau dela eta, Carlosek tek-nologiaren inguruko erreportaiak idazten hasi zen egunkariko Kultura arlorako. Pixkanaka ilustrazioak eta infografikoak albo batera utzi bazuen ere ez du inoiz egunkarian idazteari utzi eta gaur egun ere astero teknologiaren inguruko gaiak jorratzeaz aparte ‘GPS’ aldiz-karirako ere antzeko erreportaiak idazten du erregulartasunez eta egunkariko webgunean gai honen inguruko blog bat ere mantentzen du.

2002tik aurrera egunkariko bere betekizunetaz aparte Bilboko ‘VK Comunicación’ aholku-laritza enpresan lan egiten hasi zen. Bertan sei urte pasatu zituen nagusiki diseinu grafi-koko proiektuak aurrera ateratzen. 2008an Virginia Knörren kontsultoria hau utzi eta Madrilera joango da erredaktore bezala lan egiteko buru belarri, diseinua eta inprimake-taren mundua albo batera utziz. Espainiako hiriburuan zenbait proiektutan hasiko da mur-giltzen, beti teknologia eta komunikazio munduaren inguruan eta beti kazetari bezala.

Egun, Zahumenszkyk honako proiektu hauetan dabil murgilduta:

-2008ko abendutik aurrera ‘Tu Experto.com’ blog ospetsuan kolaboratzen.
-2009ko urritik aurrera ‘Un usuario más’ webgunean ere idazten.
-2010etik aurrera ‘weblogs S.L’-ko editore bezala, eta ‘Lewis PR’ komunikazio enpresara-ko kazetari ‘freelance’ bezala.

Guzti honekin batera ‘El Correo’-rako bere asteroko kolaborazio guztiekin batera, aldi pun-tualetan ere erreportai zehatzak idazten ditu berriek gai hauek ikutzen dutenean.



Carlosen etapa osoa
Zarracinaren agintaldiarekin
kointziditu egiten da

**Daniel García González (Bilbao, 1974)**

Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio Zientzietan lizentziatua –Kazetaritzan (1999) zein Publizitate eta Harreman Publikoetan (1997)–, Daniel García Zuzenbidean ere lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean (2004).

'El Correo'-n lan egiteko bere lehen beka lortu aurretik beste informazio enpresa batzu zein hedabidetan aritu zen. Radio Euskadi eta Europa Presseko Bilboko egoitzetan bekak bete ondoren 'Biderdi Consultores' komunikazio aholkularitzan lan egin zuen diseinu grafikoa eta komunikazio instituzionaleko asuntoetan. 1998ko urtarrilean 'El Correo'-n lan egiteko beka lortu eta bost hilabeteak bete ondoren udako luzapenaz ere baliatu ahal zen.

Handik aurrera asteburuetako turnoa betetzen hasi zen 'El Correo'-n, astegunetan Deustuko Unibertsitatean Zuzenbideko ikasketak aurrera eramaten zuen bitartean. 2000. urtean Erasmus beka bat lortu eta Zuzenbideko hirugarren kurtso osoa Erresuma Batuko 'Strathclyde University'-n (Glasgow) bete zuen.

Bilbora bueltatzean Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Informazio Zientzietako Fakultateko 'Kazetaritza II' atalean klaseak ematen hasten da. Bertan jardunaldi partzialeko bere dedikazioa konpartituko du 'El Correro'-rako egindako ordezkapenekin baita asteburuetako turnoekin.

Unibertsitate irakasle bezala Informazio enpresa irakasgaia irakatsi du harrezkero, baita beste zenbait irakasgai, batez ere erredakziokoak (Informazio generoak, Erreporterismoa eta Hedabideen ereduak) eta Etikakoak (Kazetaritza Lanbideko Deontologia) zein teknologiaren ingurukoak (Komunikabide Inprimatuen Teknologia).

Eraberean, EHU-EITB Multimedia Masterrean infografiaren inguruko irakasgai bat ere irakatsi zuen graduondoko kurtso hau martxan jarri zen 2009/2010 kurtsoan.



Hiru atalburu ezberdinen menpe lan egin duen infografiagile bakarra dugu Daniel

## José Miguel Benítez San Blas (Bilbao, 1974)

Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean bi lizentziatura ikasi zituen Jose María Benítez bilbotarrak. 1997an Publizitateko Espezialitatea bukatuta, Bilbokok 'A+L' iragarkigintza estudioan kolaboratzen hasi zen. Bertan diseinu grafikoko teknikak eta prozesuak ikasten zituen bitartean Kazetaritzako lizentziaturako irakasgaiak burutu zituen hurrengo bi urteetan. Bitartean, Unibertsitateko Fakultateak antolatzen dituen praktika ofizialetako deialdian aurkeztu zen 'El Correo'-n leku bat lortu nahiean. Hala erdietsi zuen eta 1999ko urtarriletik aurrera bekako bost hilabeteak betetzen hasi zen bilboko egunkarian. Uda hartan bigarren lizentziatura ere lortuta, bekaren luzapenaz ere aprobetxatu zen 'El Correo'-n irailera arte.

Praktiken epe hura bukatuta, urte harta Infografiako ataleko burua zenak, Javier Zarracina, José Miguelen trebetasunez jabetzen da eta egunkariarekin lotuta mantentzeko kolaboratzaile bezala nohizbehinkako lanak eskatuko dizkio. Internet bidez bidalitako infografiko haiek burutzen zituen bitartean 'A+L' estudiokoek lan finkoko kontratua eskaini zioten. Momentu horretan Javier Zarracinak datu hori jakinda Benitezen lana ez galtzeko egunkariko zuzendariei konbentzitu zituen nolabaiteko leku bat lortzeko enpresaren barruan. Honela sartu zen 'El Correo Digital'-eko enpresarako infografiagile bezala kontratatuta eta bertan aritu zen 2001ean zehar.

Hurrengo pausu kualitatiboa 2002ean eman zen. Carlos Zahumenszkyk bere lanpostua utzi egunkarian eta José Miguel Benitez kontratatu zuten paperezko edizioko Infografia atalean. Bertan arituko da harrezkero egun arte.

Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultaltean ere Infografia ikasgaia irakatsi du zenbait kurtsotan; 2003, 2004, 2005 eta 2008ko urtean. Lehenengoa Zarracinarekin batera, hurrengo biak Fernando Baptistarekin batera eta azkenengoa, Gonzalo de las Herasekin. Eraberean, 'EHU-El Correo' Kazetaritza multimediako Masterrean irakasgai hau ere irakatsi zuen 2008 urtean

2007ko irailean, Infografia ataleko burua, Fernando G. Baptista, egunkaria utzi eta National Geographic Magazinera lan egitera joan zenean José Miguel Benítez arduradun postu hori hartu zuen lehenengo aldiz, departamentuan laugarren atalburua bihurtuz.,



Unibertsitate beka batetatik
hasita atalburu izatera heldu
den bakarra dugu Benítez,
egungo atalburua, hain zuzen

## José María Lema de Pablo (Logroño, 1971)

José María Lema Arte Ederretan lizentziatu zen Bartzelonako San Jorge Unibertsitatean (1995). Ondoren, Zaharberritze eta Kontserbazio ikastaroak ere jarraitu zituen. Ilustratzaile 'freelance' eta marrazkilari bezala lan egin du harrezkero. Bere aktibitate horretaz aparte Logroñoko 'Errioxako Diseinu eta Arte goimailako Eskola'-n (ESDIR) ilustrazioko irakaslea dugu 1998tik aurrera. Hiru urtez Diseinu Grafikoko Departamentuko burua izan ostean, bertan jarraitzen du gaur egun klaseak ematen.

1986tik 1998ra bitartean mota ezberdinetako sei pintura eta marrazki sari jaso zituen instituzio ezberdinek emanda.

1999an 'El Correo'-ko lan eskaintzaren hautatze prozesura aurkeztu zen eta Carlos Zahumenszky eta Cristinaren Muren aurretik lortu zuen azken fasean lanpostua eta kontratatua izan zen. Hala ere, alde batetik Logroñon irakasle bezala aritu behar izateak eta, bestetik, kazetaritzaren munduak bera oso gutxi erakartzeak eragin zuten egunkaria utzi eta Logroñora bueltatzea erabakitzea.

'El Correo'-ko Erroxiako edizioarekin nohizbehinka kolaboratzeaz gain, 'Ventana Inmobiliaria' eta 'Piedra del Rayo' aldizkarientzat ere zenbait lan egin ditu.

Zenbait publizitate agentzia zein instituziorentzat lan egin du ere. Besteak beste; 'Dirección General del Medio Rural', Errioxako Gobernua, 'Cultural Rioja', I.C. Publizitate Agentzia, Roberto Nalda Estudioa, 'Nabarra' aldizkaria, Logroñoko Herri Unibertsitatea, Caja Rioja Fundazioa, Logroñoko Alde Zaharreko Asoziazioa, Logroñoko Langileen Sindikatua, Brioneseko Etnografia museoa, 'Pepitas de Calabaza' argitaletxea, 'Ografiko' agentzia, etab.

Bi urtez jarraian, 2008 eta 2009an, Boloniako Haur Liburuko nazioarteko erakustazokan partehartzeko hautatua izan da, Espainiako beste bost ilustratzailerekin batera.

2009an 'Blue Book' nazioarteko ilustratzaile profesionalen lantaldeko kidea izendatu zuten, non pintura sari anitz jaso ditu.

Bartzelonako Unibertsitatean Joera Pedagogikoko Ziurtagiria (CAP) lortu zuen. Egun Euskal Herriko Unibertsitatean doktorego kurtsoak jarraitzen ari da Arte Ederretako Fakultatean.



Infografiagile guztien artean
epealdirik motzena burutu
zuen José María Lema

**José María Estébanez (Bilbao, 1980)**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa Bilboko Andrés de Urdaneta Eskolan ikasi ondoren Iruñeara joan zen José María Estébanez Kazetaritza ikastera. 2003. urtean Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatean lizentziatu zen. Bertako azken urtea 'Southamptoneko Solent University'-n (Erresuma Batuan) jarraitu zuen Marketin eta Publizitate ikasle bezala Erasmus beka bati esker.

Karrera bukatu eta 2003ko uda horretan A Coruñako 'La Voz de Galicia'-n bete zituen praktikak Diseinu departamentuan. Jarraian Bilbora bueltatu eta 'El Correo'-ko infografia departamentuan hasi zen bekadun gisa ere 2004ean. Urte oso horretan zehar egunkarian aritu zen infografiagile bezala. Kideen oporrak kubritzen baita urte hartako udako asteburuko txandak betetzen aritua zenean enpresak jarraitzeko eskaintza luzatu zion. Hala ere Zaragozako 'El Periódico de Aragón'-eko beste eskaintza bat onartu eta 'Zeta' komunikazio taldeko egunkari horretan 2005eko lehen seihilabetean zehar.

2005eko ekainean Madrilera trasladatu zen 'Deloitte' konpainia multinazionalean lan egiteko eta harrezkero Korporazio Identitate eta Komunikazio kudeatzaile bezala ari da gaur egun arte. 2008an ESIC Marketina eta Negozio Eskolan Master bat ere jarraitu zuen.



Unibertsitate beka burutu ostean beste urtebete eta erdi aritu zen Estébanez ordezkaritzak, kolaborazioak eta asteburuko txanda betetzen

## Gonzalo de las Heras Palmero (Santander, 1975)

Gonzalo de las Heras Cantabriako Unibertsitatean Historian lizentziatu zen 1999an Arkeologia espezialidadearekin.

Unibertsitatean sartu bezain pronto teknologia eta hezkuntzaren inguruko interesa azaldu zuen, bertoko informatikako gelan arduratu baizen zenbait ikastaro emateaz informatika eta diseinu grafikoaren inguruan. Eraberean, Filosofia eta Letretako fakultateko ikasleen aldizkariaren arduraduna izan zen 1996an zehar.

1999an Santandereko 'Nivel Cero' arkeologian berezitutako aldizkariaren diseinuaz arduratu zen.

2000an, 'Cope Bilbao' irratian eta 'La Realidad' astekarian noizbehinkako kolaboratzailea izaten zen bitartean 'El Correo-UPV' Kazetaritza digitaleko masterra burutu zuen Bilbon. Jarraian 'El Correo Digital'-ean hasi zen erredaktore bezala. Bertan 'Evasión' kanala antolatzeaz arduratu zen. 2002tik aurrera beste hiru urtez egunkariko edizio digitaleko ilustratzaile eta infografiagile bezala egin zuen lan, bai 'El Correo'-rako zein Vocentoko gainontzeko egunkarientzat ere.

2004ean –Javier Zarracina infografiagilearen agurraren ostean– Gonzalo de las Herasek bete zuen bere lekua 'El Correo'-ko infografia atalean gaur egun arte.

Aipatu 'El Correo - UPV' Masterreko irakasle bezala jarduten da ere 2007 ikasturtetik aurrera 'Kazetaritza digitalerako sarrera' irakasgaia ematen.

2009tik aurrera Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatean Infografia irakasgaia inpartitzen du irakasle asoziatu bezala.

Historia, Infografia, teknologia eta Kazetaritzan aditu izateaz aparte, Gonzalok denbora ere badauka beste zaletasun batentzat; literatura, hain zuzen. 1997tik 2000ra bitartean lau poema-bilduma idatzi zituen, eta laurok sarituak izan ziren lehiaketa eta omenaldi ezberdinetan: ‘Osario en Marcha’ (Sonsecaco Hiria saria, 1997), ‘Epigramas o menos del abandonado’ (Áccesit José Hierro Saria, 1999), ‘El olvido también habita en la memoria de los teléfonos móviles (José Hierro Saria, 2000).  Eraberean, 1996tik 199ra bitartean idatzitako beste istorio eta ipuinen kontaketak hamar sari eta 'accesit' lortu zituzten.

Bere poemak eta istorio labur hauekk zenbait elkarlan eta antologiatan argitaratuak izan dira.



Zarracinaren hutsunea betetzeko
sartzen da infografia atalean Gonzalo

**Isabel Toledo Viscasillas (Zaragoza 1983)**

2001etik 2005era Publizitatea eta Harreman Publikoen lizentziatura burutu zuen Isabel Toledok Iruñean, Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatean. Bertan, hautazko irakasgaien artean 'Infografia' aukeratu zuen eta honela ezagutu zuen informazio grafiko-en mundua, garai hartan Fernando G. Baptistak irakasten zuen materia.

Lizentziatzear zegoela, 2005eko udan 'El Correon' hiruhilabetez aritzeko praktikak lortu zuen. Urtea pasata, egunkariak eta Nafarroako Unibertsitateak adostutako bekadun programa bati esker, urtebeteko beka eskaini zitzaion berriro, 2006 eta 2007an zehar bete zuena.

2007tik aurrera, Fernando G. Baptistak 'El Correo' utzi eta Washingtoneko 'National Geographic'-era lan egitera joan zenetik, Isabelek postu horretan darrai gaur egun arte eten gabe.

Irakasle bezala ere aritzeko abagadunea izan du Isabelek. Hiru ikasturte jarraian, 2009, 2010 eta 2011ean zehar, 'El Correo - UPV/EHU Multimedia Kazetaritza' masterrean 'Infografia' irakasgaia irakatsi baitu.



2006ko bekaldia burutu ostean, 2007ko irailean bueltatzen egunkarira Isabel, Fernando Baptistaren hutsunea betetzeko

**Alberto Lucas López (Iruñea, 1984)**

2008an, Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatean Kazetaritzako ikasketak bukatzear zegoenean, Alberto Lucas 'Infografia' hautazko irakasgaian matrikulatu egingo da eta bertan Jose Miguel Benítez izango du irakasle. Kurtsoa hain gustokoa izango zaio ezen hurrengo udan 'El Correo'-n praktikak egiteko eskaera aurkezten du. Honela hasi zuen bere ibilbide profesionala tuterako gazte honek.

Urte bereko ekainean hasi zuen bere beka hori infografia departamenduan eta, jarraian, ordezkaritzak eta oporrak kubritzen jarraituko du hurrengo urteko abuztua arte. Hilabete horretan asteburuko txandak kubritzen hasi zen eta postu horretan jardun zen bi urtez jarraian, 2011eko abuztua arte. Egun 'El Correo'-ko Diseinuko departamentukide bezala darrai egunkarian. Bertan egungo orrialdeekin batera, gehigarriak eta 'GPS' astekariaren orrialdeak diseinatzen ditu.

Infografia departamenduan igaro zen hiru urte horietan zehar egindako infografikoen artean 'El Correo'-k lortutako azken sariak digutu esanguratsuenak. 2010ean 'ÑH'-ko edizioan aipamen berezia lortu zuen eta 2011ean 'SND'-ko hiru 'Award of Excellence' (erreportaien atalean bi eta 'portfolio pertsonala'-n bestea), hala nola brontzezko domina bat 'Malofiej' nazioarteko sarietan ere.

2010ean ere Tuterako diseinu lehiaketa baten irabazlea izan zen bertako jaien kartel ofiziala diseinatzeko.



Sartutako azken kidea dugu Alberto.
Bere epealdi osoa Josemiren agindupean

# Infografisten jatorria

| SEXUA | | JAIOTERRIA | URTEA | IKASKETAK | UNIBERTS. | ADINA 'El CORREO'-n SARTZEAN | URTEAK 'EL CORREO'-n (2011eko abuztura arte) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | Tomás **Ondarra** | **Bilbao** | 1963 | **Kazetaritza** | **EHU / UPV** | **23** | 10,5 |
| G | Javier M. **Zarracina** | **Bilbao** | 1966 | **Kazetaritza** | **EHU / UPV** | **23** | 14,0 |
| E | Cristina **Mur** | **Bilbao** | 1967 | Arte Ederrak | **EHU / UPV** | **25** | 2,5 |
| G | Fernando G. **Baptista** | **Bilbao** | 1965 | Arte Ederrak | **EHU / UPV** | 28 | 14,5 |
| G | Aitor **Eguinoa** | **Bilbao** | 1971 | **Kazetaritza** | **EHU / UPV** | **24** | 2,0 |
| G | Carlos **Zahumenszky** | **Bilbao** | 1974 | Publizitatea | **EHU / UPV** | **23** | 7,5 |
| G | Daniel **García** | **Bilbao** | 1974 | **Kazetaritza** | **EHU / UPV** | **24** | 13,0 |
| G | José Miguel **Benítez** | **Bilbao** | 1974 | **Kazetaritza** | **EHU / UPV** | **25** | 12,0 |
| G | José María **Lema** | Logroño | 1971 | Arte Ederrak | Bartzelonako U. | 28 | 0,5 |
| G | José María **Estébanez** | **Bilbao** | 1980 | **Kazetaritza** | Nafarroako U. | **24** | 1,0 |
| G | Gonzalo **De las Heras** | Santander | 1975 | Historia | Cantabriako U. | **25** | 7,5 |
| E | Isabel **Toledo** | Zaragoza | 1983 | Publizitatea | Nafarroako U. | **23** | 5,0 |
| G | Alberto **Lucas** | Iruñea | 1984 | **Kazetaritza** | Nafarroako U. | **24** | 3,5 |




**Irudia 2**
'El Correo'-ko aro modernuko infografiagileen jatorria
**Iturria**: Berezko elaborazioa

1986an 'El Correo'-k lehen infografiagileak kontratu zuenetik 2011ra arte hamairu pertsona pasatu dira departamentu horretatik kontratatu gisa. Mur eta Toledo izan dira emakume bakarrak. Gehienak –bederatzi–, bilbokoak (1999 arte, guztiak), Kazetaritzan lizentziatuak –zortzi– eta Euskal Herriko Unibertsitatetik pasatu –zortzi ere–. Beste hiru, ordea, Arte Ederretan. 23 urtetik 25era arteko tarteko adinarekin sartu ziren –%85a–.

2000 urtera arte guztiak euskal unibertsitate publikotik zetorren arren, urte horretatik aurrera 'El Correo'-k ez du kontratatu berrriro EHUko profesionalik infografiako departamentuan lan egiteko, kanpoko erakundeetan ikasitakoak baizik. Nafarroako Unibertsitateak azken lau kideetatik hiru eman dizkio egunkariari.

Datu guzti hauek analizatuta, 'El Correo'-ko infografiagile tipoak honako ezaugarri hauek lituzke; Bilbon jaiotako gizona da, Euskal Herriko Unibertsitatean Kazetaritza ikasketetan lizentziatuta eta 23 urtetik 25era arteko adinarekin heldu zen egunkarira. Bost infografiagilek betetzen dute perfil osoa (Ondarrak, Zarracinak, Eguinoak, Garcíak eta Benítezek).

Nabaritzekoa da ere nola 13 pertsona horietatik zortzik Kazetaritzako goimailako irakaskuntzan arituak diren, Nafarroako Unibertsitatea zein Euskal Herriko Unibertsitatean.

# Urtero sinatutako grafikoak

Infografiako ataleko kide kontratatuek sinatutako grafikoak urtez urte 'Bizkaia' edizioan.

Estatistika hau osatzeko bakarrik hartu dira kontutan egunkariaren hemeroteka digitalean agertutako emaitzak., beraz, orientatiboa baino ez da. Kontutan hartu behar dugu batzutan infografiagile bakoitzak 'El Correo' generiko batez sinatzen zituela bere lanak.

Emaitza zehatzagoak lan honetako gainontzeko orrialdeetan eskeintzen dira.




**Irudia 2**
Infografiagile nagusiek sinatutako grafikoen eboluzioa
**Iturria**: Berezko elaborazioa

# 5.4.- 1989; Macintosh konputagailuen aroa

Espainiako prentsara iritsi ziren lehen 'Macintosh'-ak Bilboko 'El Correo' 'eta Bartzelonako 'El Periódico de Catalunya'-k erosi zituzten 1989an. Bilboko egunkariko agintaria zena Juanito López Redondo Estatu Batuetako 'USA Today' egunkaria bisitatu egin zuen eta bertan deskubritu zuten Apple ordenagailuak eta grafikoekin egin zitezkeen gauzak. Gustatu egin zuen eta Bilbora ekarri nahi zuten. Garai hartan Espainia osoan ez zegoen halako dendarik, baina Bilbon 'BilboMicro' ospetsua jadanik irekita zen. Bertako tekniko hauek etorri eta Macintosh ordenagailua instalatu zuten 'El Correo'-n. Ondarraren hitzetan, lehenengo bizpahiru hilabetetan zehar sistema honekin grafikoak egitea ametsgaiztoa bihurtu zen. Kalitate jeitsiera garbia suposatu zuen tresna berriaren etorrerak. Denbora asko galdu egin zuten instalazioa burutzen. Adibidez, eskanerra eta inprimagailua konektatu eta martxan ipini ahal izateko, aste pare bat. Gainera, lehen ordenagailu hartan oraindik ezin zitezkee marrazki bektorialak egin eta letra tamainak oso txikiak ziren eta lehen inprimagailu hura –LaserPlus izeneko modelukoa– puntu handiegiz inprimatzen zuen. Horregatik garai hartan egun bateko produkzioa tamaina eta kalitate ertaineko bizpahiru grafikotakoa bazen, edota tamaina handiko bat, bapatean 'Macintosh'-a agertu eta ekoizpen bolumen hori asko jeitsiko da. "Guztia zerotik hastea bezala izan zen", gogoratzen du Ondarrak.

Lehenengo Apple konputagailuarekin batera ‘MacPaint’ bitmapen bidez marrazteko aplikazioa argia ikusi zuen 1984ko urtarrilak 22an. Bere ezaugarri deigarriena, irudiak marrazteko kapaza izateaz gain, berauek beste programa batzutan erabilgarriak izatea zen. Arratoia erabiliz eta 'QuickDraw' marrazki hizkuntza, irudiak moztu eta pegatu zitezkeen 'MacWrite' dokumentuetan.




‘MacPaint’ programaren lehen bertsioa 1984ko abenduan argitaratu zuen Apple konpainia amerikarrak. Interfaze intuitibuo batez irudien ‘pixelak’ tratatzeaz gain, marrazki sinpleak burutzeko ere erabilgarria zen. Azken bertsioa (2.0) Claris konpainiak plazaratu zuen 1988ko urtarrilean.

Hauxe izan Tomás Ondarrak 1989an ‘El Correo’-ko lehen Macintosh konputagailu hartan aurkitu zuen irudi tratamendu eta marrazketa programa. Eskuz lan egindako marrazkien freskotasuna galdu egiten zelakoan, Tomásek beti nahiago egin zuen bere ilustrazioak ‘rotring’-a erabiliz burutzea. Hala ere, perfil markatuagoa eta itxura teknikoagoko marrazkiak egiteko bektore bidezko aplikazioak lehen momentutik erabiltzen bai hasi zen.

MacDraw bektore bidez marrazteko lehenetariko aplikazioa izan zen. 1984ean ere lehen 'Apple Macintosh'-ekin batera argitaratu zuen Cupertinoko konpainiak. 'Wysiwyg' sistema erabiltzen zuen lehenetarikoa ere eta 'MacWrite'-ekin batera erabilgarria. Diagrama teknikoak eta planoak marrazteko oso erabilgarria zen. Urte batzu geroago 'Claris' konpainiak berridatzi zuen eta 1990ean berriro publikatu zuten, kolorezko gaitasun berriarekin 'MacDraw Pro' markapean. Bektore bidezko figurak sortzen zituenez, berauek mugigarriak ziren.




'MacDraw' aplikazioak 'bektoreak' erabiliz, marrazkiak osatzerakoan puntuak eta segmentoak matematikoki kalkulatu egiten ditu. Infografiagileak behin eta berriz modifikatu egin ditzake, lekuz aldatu etab. Marrak poligonoen aspektu teknikoago hartzen dute eta kalitate altuagoan inprimatu egin daitezke ere 'postscript' inprimatzeko hizkuntzaren bitartez.

Hala ere, nahiz eta gaur egungo aplikazioekin konparatuz sinpleegia irudi dezakeen arren, garai hartan konplexutasun tekniko oso altua suposatzen zuen programak egunkariko inprimagailuarekin erabili eta grafiko haiei erabilgarritasun praktikoa ematea egunkariko eguneroko orrialdeetan. Hala ziren gauzak 1989ko udan 'El Correo'-k bigarren infografiagile bat kontratatzea erabaki zuenean Tomásen oporrak kubritzeko.

Lehenengo bi urteetan zehar Tomasi ezinezkoa izan zitzaion oporrik hartzea –ezta larunbatetan ere– ordezkorik aurkitzen ez bazuen. Batzutan humoregileek hartzen zuten bere lekua. Hauen artean, garai honetan Álex de la Iglesia zegoen, bestetik Garay –ostiraletako komikia marrazten zuena–.

1989ko udan lehenengo aldiz Tomasen oporraldia betetzeko beste pertsona batek hartzen du bere lekua. Javier Martínez Zarracina kazetari bilbotarrak 'PubliCien' iragargintza agentzian egiten zuen lan. Marrazki klaseak hartua zen Bilboko Santutxu auzoko akademia batean eta bertan ikasten zuen Tomásen lagun amankomun batengatik ezagutu zuen infografiagilea. Uda hartan bere lehenengo grafikoak publikatu zituen egunkarian Tomásen lekuan, baina hurrengo urte osoan zehar ez litzateke agertuko.




1988an Altsys Texaseko konpainiak argitaratu zuen Freehand programaren lehen bertsioa. Seattleko Aldus enpresak akordio batetara heldu zen Altsysekin programa batera komertzializatzeko. Lizentzia bana 495dolar kostatzen zuen.




Bektore bidez marrazteko lehen tresna haiek honako itxura hau zeukaten. Marra bakoitzak puntuz puntu marraztu zitekeen. Eraberean, poligonoak sortzeko tresnak ere erabil zitezkeen. Pantailan ‘What You Get is What You See’ interfaze intuitibo batez emaitza finala nolakoa izango zen ikusi zezakeen egileak une oro.




Marrak eta objektuak marrazterakoan oso erosoa izateaz gain, programak testu kutxak ere maneiatzeko posibilidadea eskaintzen zuen oinarrizko interfaze baten bitartez.

## 5.4.1.- Hedapena Espainian: Iruñeako lehen tailerra

1989ko uztailak 4 eta 5ean Antonio Giner ekileak bere 'Innovations in Newspapers' aholkularitza agentzia proeiktu berriaren lehen pausuak ematen zituen infografiagileen bilera bat antolatuz Iruñean. Garai hartan ‘Associated Press’ agentzian lan egiten zuen Karl Guderekin alde batetik eta ‘The Orange County Register’ egunkari kaliforniarran aritzen zen Jeff Goertzenekin bestetik mintegi hau burutu zuten Roger Fidler, José Font eta Gonzalo Peltzeren laguntzarekin. Espainiako egunkari ezberdinetako profesionalak bertaratu ziren Ginerek deituta. Bertan ikasi zuen Tomás Ondarrak zertan zetzan garaiko infografia. ‘ABC’-ko Fernando Rubio, ‘El País’-eko Mario Tascón, Gerardo Amechazurra ilustratzailea, etab. ere ikasle bezala bertaratu ziren. Ariketa praktiko bezala Sanferminen entzierroen inguruko infografikoa burutu zuten –batzuk publikatuak izan ziren ere–

Honela deskubrituko zuten infografiagile espainiarrek lehenengo aldiz 'Aldus Freehand' marrazki bektorialeko aplikazioa, zeinek infografikoak egiteko prozedura eraldatu zuen betirako. Hura "begiak irekitzea bezala" izan zela gogoratzen du Tomasek; “...zirriborrak nola prestatu, nola eskaneatu, eta lana burutzeko milaka trikimailu erakutsi zizkiguten esperientzia hauek...”.